

Datu hauen jabeari bere datu pertsonalak Euskal Mendizale Federazioan dagokion fitxategian txertatuko direla jakinarazi zaio, eta Euskal Mendizale Federazioak parte hartzen duen kirol proben berri emateko ekintzetan erabili ahal izango dira, 46. Aizkardiko Ibilaldiko parte-hartzaileen zerrenda ere bertako web orrialdean azalduko delarik. Baimen hori baliogabetu nahi izanez gero, nahikoa da honako helbide honetara jotzea, igorpena eta harrera egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz: Euskal Mendizale Federazioa . Paseo Errotaburu, 1-9º-3ª. 20018-Donostia-San Sebastián, edo Aizkardi Mendizale Elkarteak. Apdo.75. 20150-Villabona.

46. aizkardiko ibilaldia

2014 Martxoak 30



IBILALDI LUZEA

Luzera 43 Km
Desnibela 2400 m
Iraupena 10:00 ordu
Irteera Ordua 7:00 etan

IBILALDI MOTZA

Luzera 24 Km
Desnibela 1200 m
Iraupena 6 ordu
Irteera Ordua ... 8:00 etan

13. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako Baliagarria

**MENDI LASTERKETA EZ DENEZ...
IBIL ZAITEZ OINEZ !!!**



www.aizkardi.com

● 1. artikulua: AIZKARDIKO IBILALDIA

AIZKARDI Mendizale Elkarteak antolatutako zeharkaldi hau mendian egindako ibilbide herrikoa da, eta kirol- eta kultur-arloko helburuak ditu: mendizaleatasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz.

Partehartzea zabaltzeko asmoz, bi ibilbide prestatuko dira; bata 13. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango dena, eta bestea motzagoa, ibilbide erdikoa. Ibilbide luzean parte hartzeko 14 urte beteak izatea derrigorrezkoa da.

● 2. artikulua: ERANTZUKIZUNAK

Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendibilbide bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. AIZKARDI Mendi Elkarteak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnitazioak eskatzeari. Mendi-jarduera hau edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen da.

Elkarteak jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

● 3. artikulua: IBILBIDEA

Aizkardiko 46. ibilaldia 2014ko martxoaren 30ean egingo da, irteera eta helmuga Villabonan izango direlarik. Ibilbide luzeak 43 Km inguru ditu, Villabona (61m) - Lapurtxulo - Onddo (780m) - Azketa (832m) - Leuneta (880m) - Abadekurutz (984m) - Mandoegi (1.045m) - Kondizatzeke lepoa - Leitzaran - Gorosmendi - Mugaga - Urdelar (858m) - Belabieta - Meaka - Otsabi - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 2.400 metroko desnibel gehitua du, HAMAR ordu inguruan burutzen dena.

Luzera erdiko ibilbideak berriz, 24 Km inguruko luzera du, Villabona (61m) - Otita (Leitzaran) - Lapurtxulo - Astabizkar (575m) - Amasola (Leitzaran) - Praxku - Kanal Haundia - Oinddolar (425m) - Arlagats - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 1200 metro inguruko desnibel gehitua du, SEI ordu inguruan burutzen dena.

● 4. artikulua: INFORMAZIOA / IZEN-EMATEA

Informazioa (Martxoaren 1etik aurrera) :

- Telefonoa (lanegunetan 20etatik 22etara): 649717182

- email : ibilaldia@aizkardi.com

Izen-ematea :

Izen-ematea DOAKOIA da, Martxoaren 1etik aurrera egin ahal izango da eta ondoren azaltzen diren bideak erabiliz egin daiteke:

- Interneteko helbidea: <http://www.zirkuitua.com>

- AIZKARDI Mendi Elkartearen lokalean, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara

- Ibilaldiaren egunean bertan.

Izena emateko behar diren datuak:

- federazioko lizentzia zenbakia, EHNA edo DNI,

- izena eta bi abizen,

- autatutako ibilbidea, federatuta zauden ala ez, eta klubaren izena ere bai.

● 5. artikulua: ZERBITZUAK

Elkarteak lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi duten guzientzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolakuntzari jakinarazi beharko diote telefonoz edo e-mailaz.

Kontsigna serbitzua izango da aldatzeko arropadun poltsa bat bertan utzi nahi duentzat

.Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte, Villabonako Olaederra Kiroldegian.

● 6. artikulua: IRTEERA

Zeharkaldi luzea goizeko ZAZPIETAN hasiko da, eta motza ZORTZIETAN. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren araberrako zenbakiarekin. Era mailakatuan emango da irteera, gutxi gorabehera 50 parte-hartzaile minutuko.

● 7. artikulua: KONTROLAK

Parte-hartzaileek goian azalduetako ibilbidea egin behar dute, eta derrigor txarto behar dute ezarritako kontrolatik. Kontrol horietan marxa-txartela erakutsi beharko dute, zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adierazitako gutxieneko eta gehieneko denbora-tartean egongo dira zabalik.

● 8. artikulua: BALIZAK

Ibilbideak plastikozko zinten bidez markatuta egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

● 9. artikulua: HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketa kideek ura eta gutxieneko homidura jarriko dute Lapurtxulo, Etxela, Leitzaran eta Mugaga kontrolatan. Ibilbidean dauden iturri naturalak: Aitzola (km 14) eta Urepel (km 22).

● 10. artikulua: ERRETIRATZEA


Ibilbidean zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar diete txartela, edo bestela 649.71.71.82 telefono-zenbakian jakinarazi. Erretiratzeko punturik egokiena Leitzaran da

● 11. artikulua: BUKAERA

Ibilbidea egiten duten parte-hartzaileei, marxa gehienez HAMAR ORDU TERDI (Ibilaldi Luzea) eta ZAZPI (Ibilaldi Motza) orduren buruan egin duela ziurtatzen duen marxa-txartela erakutsiz gero, diploma banatuko zaie helmugan.

Arratsaldeko BOSTERDIETAN, beti bezala, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean

Km	LEKUA	ALT	DESNIB. +	DESNIB. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	7:00	7:00	7:10
3,0	LASTUR Atsedenekua	170	170	55	7:28	7:36	7:53
3,7	Mandabietako bidegurutzea	210	250	61	7:35	7:45	8:00
4,7	TXERTOTA –San Esteban auzoa–	185	260	125	7:44	7:57	8:15
5,8	OTIETA Parkea	65	265	250	7:53	8:10	8:30
8,3	MUNTTO bidegurutzea	470	620	260	8:25	8:46	9:15
9,6	K-2 : LAPURTXULO	566	715	260	8:37	9:02	9:30
9,8	USOBELARTZAko zelaia	610	780	270	8:40	9:06	9:35
10,8	ONDDOko gaina	780	950	270	8:53	9:21	9:52
11,3	OTSOLEPOko lepoa	670	960	350	8:58	9:28	10:00
13,1	PELOTASOROKo gaina	680	1035	420	9:14	9:49	10:23
14,6	AITZOLEko ITURRIA	737	1120	450	9:30	10:05	10:45
15,4	ETZELAKo kaskoa	813	1185	465	9:37	10:18	11:00
16,1	K-3 : ETZELAKo LEPOA	780	1200	515	9:43	10:26	11:07
17,0	LEUNETAKo gaina	882	1295	535	9:53	10:39	11:22
19,3	ABADEKURUTZeko gaina	984	1460	600	10:16	11:08	11:55
20,1	TXISPARIko lepoa	945	1485	665	10:23	11:19	12:07
20,7	MANDOEGIKo gaina	1045	1568	666	10:30	11:27	12:17
22,2	UREPELEko gaina	1055	1655	764	10:45	11:47	12:40
22,9	KONDIZATZEko lepoa	895	1655	900	10:50	11:55	12:50
26,8	K-4 : LEITZARANgo IBAIA	360	1700	1375	11:25	12:45	13:45
30,6	GOROSMENDIKo lepoa	665	2030	1475	12:07	13:37	14:45
32,7	K-5 : MUGAGAKo LEPOA	685	2120	1560	12:26	14:05	15:15
33,9	URDELAREko gaina	858	2260	1570	12:40	14:21	15:35
34,8	BELABIETA TXIKIKo lepoa	758	2265	1675	12:48	14:30	15:48
36,2	IBIAINGo langa	615	2280	1800	13:00	14:48	16:15
36,7	BELABIETA	675	2340	1810	13:06	14:56	16:16
37,7	MEAKAKo gurutzea	535	2340	1840	13:15	15:08	16:30
38,8	ARIZMENDIKo gaina	492	2375	2015	13:25	15:21	16:45
40,9	KOMIZAREko Atsedenekua	190	2390	2300	13:44	15:46	17:14
42,4	OTSABI Auzoa	67	2400	2393	13:57	16:04	17:34
42,8	K-6 : VILLABONA	60	2400	2400	14:00	16:10	17:40



Km	LEKUA	ALT	DESNIB +	DESNIB -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	8:00	8:00	8:10
3,0	LASTUR Atsedenekua	170	170	55	8:30	8:35	9:00
3,7	MANDABIETAtako bidegurutzea	220	250	61	8:40	8:50	9:20
4,7	TXERTOTA –San Esteban auzoa–	185	260	125	8:45	8:55	9:30
5,8	OTIETA Parkea	65	265	250	8:55	9:10	9:45
8,3	MUNTTO bidegurutzea	470	620	260	9:25	9:50	10:35
9,6	K-2 : LAPURTXULO	566	715	260	9:40	10:05	11:00
10,3	ASTABIZKARKo gaina	575	740	280	9:45	10:12	11:10
13,4	Leitzarano ibaia	145	770	650	10:15	10:50	12:00
13,9	Amasola	135	770	670	10:15	11:00	12:10
15,2	K-3 : KANAL HANDIA Praxkuren borda	300	950	690	10:35	11:15	12:35
16,9	Makinete	300	1010	760	10:50	11:40	13:00
19,4	OINDDOLARko gaina	436	1150	820	11:15	12:10	13:50
20,4	Arlagats	310	1175	920	11:25	12:25	14:05
21,8	KOMIZAR Atsedenekua	190	1190	1050	11:35	12:35	14:25
24,0	K-4 : VILLABONA	60	1200	1200	11:50	13:00	14:50